

# Donostiako Zinemaldia



## 1- Zer dakizu Zinemaldiari buruz?

Zenbat dakizu Donostiako Zinemaldiari buruz? Saia zaitez galdera hauetaz erantzuten. Gero, jo testura konprobatzera. Ea zenbat asmatzen dituzun!

### 1- Noiz izaten da Zinemaldia?

- Maiatzean
- Irailean
- Azaroan

### 2- Zer maila dauka?

- Espainiako gorena
- Europako gorena
- Gorena

### 3- Zenbat urte ditu?

- 60 baino gehiago
- 40 baino gutxiago
- 40 eta 60 artean

### 4- Zein sari irabazten du film onenak?

- Urrezko Donostia Saria
- Donostia Saria
- Urrezko Maskorra

### 5- Zuzendari hauetako batek ez du inoiz estrenaldirik egin Donostian. Nork?

- John Ford
- Alfred Hitchcock
- Woody Allen

### 6- Zergatik da garrantzitsua Zinemaldia?

- Eskaintzen duen zinemarengatik
- Daukan aurrekontuarengatik
- Etortzen diren pertsonaia famatuengatik



# SSIFF

**Donostia Zinemaldia**  
**Festival de San Sebastián**  
**International Film Festival**



## The Tribe

Thriller gordina da The tribe ukraniarra (jatorrizkoan, Plemya). Inoiz ez bezala, pelikulako aktore guztiak gormutuak dira, eta zeinu bidez aritzen dira euren artean. Hau da, pauso hots eta kolpeetatik harago, ikusleak ez du ezer entzungo, ahotsik ez, behintzat. Nerabe gormutuz beteriko barnetegian, munduak bazter utziriko txoko ilunean, oihanaren legea da nagusi: mafia, biolentzia, sexua, mendekua, isolamendua... gupidarik gabe landu ditu Myroslav Slaboshpytskiy zuzendariak, kritiken arabera. Hain zuzen, Canneseko Kritikaren Astea irabazi du aurten filmak.



## Corn Island

Simindis Kundzuli du jatorrizko titulua, Artoaren Irla, alegia. Artoa landatzeko asmoz uharte txiki batean etxola eraiki eta bertara bizitzera joango dira gizon zahar bat eta haren biloba. Uharte, ordea, Georgia eta Abkhaziaren artean dago, eta gerran daude bi lurraldeok, Abkhaziak independentzia lortu nahi duelako. Baina ingurutik etengabe pasatzen diren soldadu georgiarrak baino arriskutsuagoa da, hainbatetan, natura bera. Sakona, estetikoki indartsua, lirikoa... dira jaso dituen laudorioetako batzuk. George Ovashvili georgiarraren filmak sari nagusia lortu du Karlovy Varyko zinema jaialdian.

## Matar a un hombre

Mendekua. Hori da Alejandro Fernández Almendras txiletarrak zuzenduriko pelikularen ardatza. Jorgeri semea hilko dio lapur batek, eta espetxean denbora bat igaro ostean aske geratzen denean, berriz ere aurrez aurre aurkituko dira hildakoaren aita eta hiltzailea. Tentsioa mantenduz, bortizkeriaz, amorruez, inpotentziaz... mintzo da zuzendaria, Sundance eta Rotterdam jaialdietan saritu duten pelikula honetan.

## 3- Zinemaldian euskaraz izena baino ez



*Konturatuko zinen film horietan guztietan ez dagoela euskarazko izenik duenik. Euskarazko filmik ere nekez aurkituko dugu Zinemaldian, izena euskaraz badu ere. Baina, zenbaterainokoa da euskararen presentzia Zinemaldian? Hona hemen **Pantailak Euskaraz** ekimenak egindako azterketa. Ekimen horrek zinema eta telebista pantailetan euskararen presentzia sustatzea du helburu. Irakurri artikulua eta komentatu ondorengo esaldiak EGIA ala GEZURRA ote diren.*

# Donostiako Zinemaldian euskarak izango duen presentziaren inguruko irakurketa

Datorren ostiralean Euskal Herrian ikusentzunezkoen arloan urteko gertakizunik garrantzitsuena hasiko dela eta, kultur ekitaldi honetan euskarak duen presentziaren inguruko irakurketa partekatu nahi du *Pantailak Euskarazek*. 2021eko Zinemaldiak izango dituen 511 emanaldiak banan-banan aztertu ondoren, azaleratutako datuak gordin bezain kezkarriak dira:

511 emanalditik, jatorrizko bertsoia euskara, elebidun, edo hirueledun dutenak, 27 dira. Euskarazko azpidatziak izango dituzten saioak, berriz, 33. Hau da, emanaldien %11 izango da euskaraz (batzuk eleanitzak) edo euskaraz azpidatzita. Kontuan izan behar da Zinemaldiko araudiaren 6. artikulua emanaldi guztiak gazteleraz edo gaztelerazko azpidatziekin ikusi ahal izatea ezartzen duela, baina ez dio ezer euskaraz ikusteko aukera bermatzeari buruz. Beraz, emanaldi guztiak gazteleraz edo gaztelerazko azpidatziekin eskainiko dira.

Nekez uler daiteke hainbeste diru publikorekin ospatzen den ekitaldi honetan, bi hizkuntza ofizial dauden lurralde batean, euskarak, eta beraz, euskaldunok, horrelako diskriminazioa jasatea. Legeak dio “Jaurilaritzak neurriak hartuko dituela bi hizkuntza ofizialen erabilera arian-arian berdintzeraino” besteak beste, zinemari eta ikusentzunezko grabazioetan. Lege honek 40 urte egingo ditu laster, eta bertan jasotzen diren artikulua asko oraindik ere ez dira betetzen. *Pantailak Euskarazek* hau ozen salatu nahi du.

Zinemaldian euskararen presentzia %11koa da, baina Euskal Herri osoko zinema aretoetan urtean zehar estreinatzen diren filmen %1 inguru estreinatzen da euskaraz. Gainera, zinema ikusteko ohiturak aldatu dira azken hamarkadan, eta gero eta ohikoagoa da filmak ordainketa bidezko plataformetan ikustea (euskaldunen erdiak kontsumitzen ditu jada): nagusi diren plataformetan euskararen presentzia ez da % 0,1era iristen.

	EGIA	GEZURRA
<i>Pantailak Euskarazek</i> azaletik aztertu ditu Donostiako Zinemaldiko film gehienak eta ondorio kezkarriak atera ditu.		
Zinemaldiko araudiak jasotzen du film guztiak gazteleraz edo gaztelerazko azpidatutuekin ikusi behar direla, baina ez du ezer aipatzen euskarari buruz.		
Zinemaldiko emanaldien %11k euskarazko azpidatutuluak ditu.		
Legeak dio emanaldi guztiek euskaraz eta erdaraz izan behar dutela.		
Zinema aretoetan filmen %1 baino ez da euskaraz estreinatzen, eta telebistako plataformetan %0.1 baino gutxiago.		

*Komentatu ikaskideen artean honako galdera hauek:*

- Euskarazko pelikulak edota telesailak ikusteko ohiturarik daukazu? Zein da zineman, telebistan edo beste euskarri batean ikusi duzun azkena? Zein ezagutzen duzu?
- Zein nahiago duzu jatorriz euskaraz egindako pelikulak ala nazioarteko film arrakastatsuek bikoiztuta?
- IKAk urtero antolatzen du euskarazko zinema emanaldi bat gabonetako oporren atarian. Parte hartu al duzu inoiz ekimen horretan? Zer pelikula ikusi zenuen?
- *Euskara Pantaila Handian* egitasmoa Oihanederrek eta Gasteizko hainbat euskaltegi antolatzen duten jardura da. Honen bitartez euskarazko pelikulak pantaila handian ikusteko aukera ematen zaie Gasteizko euskara ikasleei. Ezagutzen al zenuen ekimen hau? Parte hartu al duzu inoiz? Zein pelikula ikusi zenuen?

## 4- Zinemaldia, polemikatik polemikara



*2021eko Zinemaldiaren edizioan Johnny Depp-i eman diote Donostia Saria. Omenaldia jasotzeko momentuan aktore estatubatuarra indarkeria matxistako kasu batengatik epaitzen ari dira eta horrek askoren kexa eragin du, besteak beste, erakunde feministena. Jarraian, gai horren harira hainbat zinemagile elkarte feministak kaleratutako salaketaren inguruko berria irakurriko duzue.*

## Zinemagile elkarte feministen gogoeta, Johnny Depp-ek jasoko duen Donostia Sariaren harira

**«Zer mezu ematen da indarkeria matxistagatik salatutako gizonak txalotuak direnean, alfonbra gorrietan argazkiak ateratzen dituztenean, zalez inguratuta agertzen direnean?». Zazpi zinemagile elkarte feministak beren gogoeta plazaratu dute, Johnny Depp-i gaur emango dioten Donostia Sariaren harira.**

Estatuko zazpi zinemagile elkarte feministak, tartean (H)emen Euskal Herriko ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektoreko emakumeen elkarteak, beren gogoeta plazaratu dute Twitterren bidez, Johnny Depp aktoreak gauean jasoko duen Donostia Sariaren harira, eta gaur Zinemaldia zergatik ez duten txalotuko azaldu dute.

Elkarte hauek nabarmendu dutenez, ohorezko sari bat erabakitzeko orduan jaialdi bakoitzak bere irizpideak ditu baina «ez dira inolaz ere faktore artistikoetara mugatzen», eta antolakuntza bakoitzaren «erabakia da genero-ikuspegia eta aniztasuna sartzea edo ez sartzea».



Donostiako Zinemaldia A mailako nazioarteko jaialdia izaki, horrelako sari bat emateak «komunikabideetan eta imaginario kolektiboan» duen oihartzuna kontuan izanda, hausnarketa hauek ere mahai gainean jarri dituzte:

«Zer mezu ematen da indarkeria matxistagatik salatutako gizonak txalotuak direnean, alfonbra gorrietan argazkiak ateratzen dituztenean, zalez inguratuta agertzen direnean? ».

### **Ekintzaren ondorioak neurtu**

Zinegile hauek diotenez, «indarkeria matxistagatik prozesatua edo epaitua izan den norbait» ohorezko sarien zerrendatik kanpo uzteko erabakia hartzeak «ez du esan nahi haren balio artistikoa aitortzen ez denik», baizik eta «erantzukizuna da». Horregatik erabaki horren ondorioak ere neurtu egin behar direla azpimarratu dute.

Haien ustez, «indarkeria matxistarekin lotutako akusazioak dituen gizon bat saritzea erantzukizun hori saihestea da». Horregatik eta «indarkeria matxista salatu nahi eta ausartzen ez diren emakumeengatik, salatu ondoren sinetsiak ez direnengatik, sufritzen eta borrokatzen dutenengatik, beren indar eta minagatik, erail zituztenengatik, guztienganako errespetuagatik» gaur ez dute txalotuko.



#### *Komentatu ikaskideen artean:*

- Zilegia iruditzen zaizue indarkeria matxistagatik salaketa bat duen aktore bat saritzea?
- Zilegia iruditzen al zaizue ideia edo jarrera gaitzesgarriak dituen artista bat sari banaketa batetik baztertzea bere ideienengatik? Zein ideia baztertuko zenituzkete eta zein ez?
- Zilegia iruditzen al zaizue ideia gaitzesgarriak dituen artista baten lana zentsuratzea edo boikoteatzea?
- Bereizi egin behar da artista baten ibilbide profesionala eta bere bizitza pertsonala?

# ERANTZUNAK

## 1- Zer dakizu Zinemaldiari buruz?

Noiz izaten da Zinemaldia? **Irailean**

Zer maila dauka? **Gorena**

Zenbat urte ditu? **60 baino gehiago**

Zein sari irabazten du film onenak? **Urrezko Maskorra**

Zuzendari hauetako batek ez du inoiz estreinaldirik egin Donostian. Nork? **John Ford**

Zergatik da garrantzitsua Zinemaldia? **Eskaintzen duen zinemarengatik**

## 3- Zinemaldian euskaraz izena baino ez

	EGIA	GEZURRA
<i>Pantailak Euskarazek azaletik aztertu ditu Donostiako Zinemaldiko film gehienak eta ondorio kezagarriak atera ditu.</i>		X
Zinemaldiko araudiak jasotzen du film guztiak gazteleraz edo gaztelerazko azpтитuluekin ikusi behar direla, baina ez du ezer aipatzen euskarari buruz.	X	
Zinemaldiko emanaldien %11k euskarazko azpтитuluak ditu.		X
Legeak dio emanaldi guztiek euskaraz eta erdaraz izan behar dutela.		X
Zinema aretoetan filmen %1 baino ez da euskaraz estrainatzen, eta telebistako plataformetan %0.1 baino gutxiago.	X	